

CRITICAL PRACTICE

Artista, museoko arduradun, diseinatzaile edo teorilari garen heinean, Critical Practicekook aitortzen dugu gure praktikak eta beraien interpretazioa, edo teorizazioa, historiaratzea edo kudeatzea, ez direla gai bereziak, edo behintzat ez direla diziplina desberdinen pribilegioak. Guretzat argi dago artelanak eta artistak ekologia batean bizi direla, erakusketek, museo nahiz galeriek, hezkuntza guneek, zaletu talde sutsuek, babesleek, adiskidetasunek, katalogoek, jakintza erakundeek, teorilariak, kritikariak, iragarkiek eta bestelakoek osatutako sarearekin eraikitako ekologia batean.

Hori dela eta, Critical Practicek konpromisoa hartu nahi du artegintzan parte hartzen duten indar anitzekin, eta gero eta eskuordetuagoa den artearen esperientziarekin, erakundeen eskutik publikoaren esku jartzen denarekin. Praktika kreatiborako eredu berriak arakatuko ditugu, eta eredu horiek foro publiko aproposetan kokatuko ditugu, bai bertako bai nazioarteko foroetan. Erakusketetan eta erakusketa erakundeetan, mintegietan, hitzaldietan, filmetan, kontzertuetan eta bestelako gertaera kulturaletan partaide izan nahi genuke. Artxibo eta bilduma, argitalpen, emankizun, web bidezko baliabide eta babesleekin lan egingo dugu, eta era berean gogotsu kolaboratzen ere saiatuko gara.

1. Azken hamarkadetan hainbat aldaketa sozialek izan dute eragina ikusizko arteen irakaskuntzan. Critical Practicen horietako bi identifikatu ditugu. Lehenengoa, alor artistikoaren instrumentalizazioaren arriskua da, balio, metodo eta eredu korporatiboaren internazionalizazio masiboaren ondorioz. Arrisku edo mehatxu hori edonon ikus daiteke: galeria eta museo publikoetan, baita artisten estudio eta praktiketetan, batez ere Erresuma Batuko arte eskola eta fakultateetan. Artearen irakaskuntza, iraganean Erresuma Batuan estatuaren diruz lagundua zen, baina gaur egun negozio eta kudeaketaren hizkuntza eta praktikaz bete dagoen merkatua da. Irabaziak izatea gure unibertsitatearen helburu nagusia ez den arren, argi dago bertako ikasleei nahiz langileei buruzko ideia aldatu egin dela: batzuk bezero gisa ikusten dira, eta besteak, zerbitzua ematen duten pertsona gisa. Eredu korporatibo hori kudeaketa teknologien bidez inposatu eta erreproduzitzen da, eta horren barne daude jarraipena, urteko txostenen bidezko «auto»-ebaluaketa, adituen ebaluaketa eta kalitate bermea, betiere baldintza orokorrak, praktika kodeak, diziplina-prozedurak eta “arrisku ebaluaketaren” gisako protokoloak beteaz egiten direnak.

Bigarren aldaketa da ikus-artearen hezkuntzan, *merkatua* diziplinazko indar gisa itzuli dela, ia era histerikoan. Critical Practicek ikerketa, aholkularitza, lana, langabezia, lankidetzak, ekimena, eskuzabaltasuna, borondatezko lana eta ikasketa jarraituak uztartzen dituzten sormen praktikak sustatu eta babesten ditu, ordainketa eredu tradizionaletatik kanpo geratzen diren praktikak baitira. Eta hala ere, arte eskoletan egiten diren sormen praktika ereduak ekoizpena, arte galerietako banaketa eta merkatu Darwiniarra izaten dute balio oinarri gisa. «Egunero galeria berriak irekitzen dira: Tate-k eta *Frieze*-k Londreseko artearen *booma* sustatu dute. Bildumagile eta museo arduradunak hiriburura biltzen direlarik, Erresuma Batuko merkatuak 500 milioi libera inguruko balio duela kalkulatu da». *Guardian*, 2006ko urriaren 7a, larunbata – <http://arts.guardian.co.uk/news/story/> .

2. Critical Practicek badaki *Kultur ikasketak* deritzon kontzeptu zabal hori Artearen

Historiak eta Estetika filosofikoak ikus-artearen ekoizpenean duten presioa apurtzeko gai izan zela. Baina horrez gain, kultura guztiaren ikasketa teoriko eta orokorrari ere, ez horrenbeste kulturaren produktu batzuei bakarrik, lotura bat ikusten diogu, *kokapen zehatz, erakundeen kritika*, eta *testuinguruko* edo *kokatutako* praktika kreatiboekin. Gaur egun *kokatutako* proiektu kreatiboen aukera baten bila ari gara. Horretarako Tate-rekin ari gara elkarlanean, Artistak Kokatzeko Talde *ireki* baten artxiboan; GKEekin ari gara lanean, «jakintza zabaltzeko elkarte» modukoak garatzen, betiere gobernuaren ikuspegiak, negozioari begira; Utrechteko Cascorekin ari gara lanean (*The Office for Art, Design and Theory*), arte praktikak, teknologiak eta artearen irakaskuntzak duten harremana ikertuz; oraindik bukatu gabe ditugun beste hainbat gertaera hibrido daude, «Thinking Through Practice» (Praktika bidezko pentsamendua) izenburupean, praktika estetikoaren eta gaur egungo arazo filosofikoaren arteko harremana aztertzeko.

Hala ere, proiektu hauetako batek ere ez du *hezkuntza teorikoa* instrumentalizatzen. Izan ere, hala balitz, praktikaren ideia galduko lukete proiektu horiek. Baina horrez gain, *teoriak* (oso zentzu zabalean, hau da, testuak, ideiak, iritziak, eztabaidak eta abar), oraindik ez baititu Critical Practicek instituzionalizatu edo behintzat *ikasi*. Aitzitik, gure lana aberasten dituzten teoria gehienak gure praktikatako testuingurutik atera dira; adibidez, hor dira 1960ko hamarkadan, arte *zibernetikoaren* pedagogia, antolakuntzarako jarraibide *irekiak* eta kultura *politika*. Kasu honetan, Terry Atkinson-ek esandakoa gertatzen dela pentsatu nahi dugu: “praktikak teoria birteorizatzen duela”. Ondorioz, Critical Practicek *hezkuntza teorikoaren* gauzatzea errefusatu du arte eskolen curriculumetan ikasi daitekeen (eta ondorioz merkaturatu daitekeen) jakintza entitate gisa.

3. Lehenik, kontuan hartu behar da gure *hezkuntza praktikak* era askotakoak izan daitezkeela. Gutako askok arte ederren fakultateekin edo bestelako hezkuntza erakundeekin lan egiten dugu, batez ere artea, komunikabideak eta, oro har, kultura irakasten. Gutako beste batzuk Londreseko Chelsea College of Art & Design-en lan egiten dugu, beste batzuk Erresuma Batuko edo kanpoko beste erakunde batzuetan egiten dugu lan. Gure arteko batzuk duela gutxi Chelsea College-n graduatu gara, eta beste batzuk, berriz, oraindik ikasleak gara, bai karrerakoak edo ikerketa lanetan gabiltzanak ere. Horrela, guk nahi genuke Critical Practicen jakintza eta esperientzia ekoizpenak hezkuntza ere aktiboan aberastea (eta hezkuntza ahalik ez zentzu zabalenean ulertzen dugu). Gure helburuetako lehenak dio: “Kultur ekoizpenaren eremua aztertuko dugu merkatu lehiakorraren logikarekiko, boterearekiko eta balioekiko erresistentzia leku gisa”. Horrek esan nahi du praktika sortzailea egitea, eta ahal delarik, erakunde publikoak eta babes publikoa inplikatzeko, baita software librea edo Free/Libre/Open-Source Software (FLOSS) metodologiak aplikatzeko ere. Izan ere, metodologia horiek dira gure ideologiaren mugarri, gure administrazio eta antolamendu egituretan, baita eduki libreko lizentzien erabileran ere. Gure lana argitaratu, azaldu, dokumentatu, artxibatu eta zabaltzen saiatzen gara, batez ere gure webgunearen bitartez <http://www.criticalpracticechelsea.org>, betiere jarraibide hauei jarraituz. Era horretan, ziurtatu nahi dugu baliabide publikoak finantzatutako ikerketa esparru publikora itzultzen dugula, horrela beste jende askok (bai Chelseako College barruko nahiz kanpokoak), baliabide horiek eskura izan ditzaten, eta hartara ekarpenak egin ditzaten.

Zehar-ek proposatutako galderak Critical Practiceko partaideek erantzun dituzte, denek batera. Critical Practice artista, ikerlari eta akademikoek osatuta dagoen talde bat da, Londreseko Chelsea College of Art & Design-en babesean sortua.

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Testuak nahiz itzulpenak kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.

Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu:

http://creativecommons.org/license/index_html?lang=eu